

## Sarea bera bulego: erosoa eta merkea

INTERNETEN BERTAN ERABIL DAITEZKE GERO ETA PROGRAMA GEHIAGO, ORDENAGAILUAN INSTALATU BEHARRIK GABE



Laneko mugikortasunak Internet du abiapuntu eta helmuga. Luze gabe, Sareari lotuak lan egingo dugu, eta etengabe mugituz. Hainbat tresna erabiliko ditugu joan-etorri horietan, guztiak elkarri konektatuta; horretarako, nahikoa da guk erabiltzen dugun ordenagailuak nabigatzailea instalatuta edukitzea, Explorer edo Firefox, adibidez. Hainbat aplikaziok ematen dute aukera nabigatzailetik lan egin eta testuak Interneten gordetzeko. Hor daude, besteak beste, Zoho, Google Docs edo Acrobat.com: web orriak dira, testuak idazteko erabil daitezkeen web orriak. Eta berdin egin daiteke kalkulu orriekin edo Power Point-en prestatu ditugun aurkezpenekin, eta irudiekin ere bai. Nabigatzailearen bitartez irits gaitzke dokumentu horietara guztietara, eta Sarean guretzat gorde dugun eremu batean bildu eta antolatu ditzakegu.

### Konexio ona behar da dokumentuak eskura edukitzeko

Oso erosoa gerta daiteke idazmahai birtual batean lan egitea, bilatu nahi dugun dokumentua esku-eskura eduki baitezakegu beti, ordenagailuan garbiketarik egiten ibili beharrik gabe, edo dokumentu bakoitzari data bat, kolore bat edo karpeta bat atxikitze lanik hartu gabe. Bere arriskua ere badu, ordea, Interneten instalatuta dauden programak erabiltzeak: Sarearen mende jartzen gaitu erabat. Konexio onik gabe, ordenagailurik ahaltsuenarekin ere ez dugu lortuko dokumentuak beste erabiltzaileekin partekatzea, ez bezeroekin, ez bazkideekin, ez lagunekin, ez laguntzaileekin... eta sarbiderik ere ez genuke edukiko eguneroko zereginetan erabili behar izaten diren lan tresnetara iristeko.

Konexio ona eskura edukiz gero, sistema honi esker, edozein lekutatik sar gaitzke dokumentuetara, eta horixe du, hain zuzen, abantaila nagusia. Sarean gordea badugu, ez dugu etxeko ordenagailuaren aurrean egon beharrik ikusi nahi duguna ikusteko. Ziberkafe bateko ordenagailua ere izan daiteke etxeko ordenagailu, informazio guztia eskuragarri geratzen baitzaigu. Agenda elektronikotik edo esku telefonotik ere irits gaitzke dokumentu horietara, baina konexioa eduki behar dugu horretarako ere.

Lan eremuan oso erabilgarria gerta daiteke, eta abantaila nabarmenak ditu. Hara eta hona dabilen saltzaile batek, adibidez, ohiko ibilbidea egiten ari denean idatz dezake zer non utzi duen, zer eskatu dioten, eta abar, bulegora iritsi zain egon gabe. Hark etekin ona atera diezaioke idazmahai birtualari, bai dirutan, eta bai denboran ere.

### Lan talde sakabanatuak

Aplikazio hauek talde lanaren lagungarri ere gertatzen dira, aukera ematen baitute hainbat jende dokumentu berarekin lan egin dezan. Taldekideak Sarera konektatuta badaude, guztiak aldi berean ikusi eta erabili ahal izango dituzte dokumentuak, eta modu koordinatuan lan egin. Dokumentua zein webgunetan dagoen jakin, egilearen baimena lortu, eta hantxe aurkituko dute. Lan talde sakabanatuak deitzen zaie horrela jarduten dutenei; ez dute zertan egon guztiak leku berean, aski dute langai eta langune berari konektaturik egotea.

Ekimen akademikoetan oso ohikoa da lan talde sakabanatuekin lan egitea, hainbat herrialde eta kontinentetako unibertsitateek

parte hartzen duten ekimenetan, batik batik. Ikertzaileek proiektuak izaten dituzte esku artean, eta dokumentuetan jartzen dituzte euren aurkikuntzak. Ondoren, beste herrialde edo unibertsitate bateko ikertzaileek aukera dute dokumentu horiek editatzeko, osatzeko edo nahi adina nabardura egiteko. Horrela lantzen da proiektu bat munduko hainbat bazterretatik. Unibertsitatean ez ezik, enpresa munduan ere gero eta hedatuagoak daude lan talde sakabanatuak; inguru berean bizi ez den jendea biltzeko modu ona da, edo telelanak eskaintzen duen malgutasuna lehenesten dutenak elkarrekin lanean jartzeko.

### Datu zentralizatuak, eta besteren esku

Zerbitzu hauek erabiltzeko, izena eman behar du erabiltzaileak, eta beste zenbait datu ere bai. Gainera, aplikazio hauetan erabiltzen diren dokumentu guztiak eta, ondorioz, informazioa guztia zerbitzari batean gordetzen da, zerbitzua eskaintzen duen enpresaren zerbitzarian. Dokumentuak eta informazioa babesteko teknikan asko aurreratu dute—zifra-kodeak erabiltzen dituzte—, baina erabiltzaileak, informazioa gorde baino ezin du egin; zaindu, beste batek egiten du, eta harengan konfiantza eduki beharra dago. Zerbitzu hauetako gehienek asmoa ez da datuak bidegabe erabiltzea (beste enpresa batzuen esku uztea, adibidez), baina, badaezpada ere, ongi neurtu beharra dago zein informazio jarri zerbitzu mota hauetan, eta zein informazio bidali beste bitarteko pribatuetatik. //

## Zerbitzu nagusiak

**GOOGLE DOCS:** Google-k sortu du idazmahai birtualik arrakastatsuen.

Interneten biltegi moduko bat sortzeko aukera ematen du, eta erabiltzaileak hain gorde ditzake bere testuak, kalkulu orriak eta aurkezpenak. Dokumentu horiek, gainera, hainbat formatutan ekar daitezke ordenagailura, eta gero berriz webgunera igo. Doakoa da, eta oso segurua. Kode konplexuak erabiltzen ditu dokumentuak gordetzen dituzten webguneen helbideak sortzeko, eta dokumentuetara iristeko baimena posta elektronikoz bidaltzen du. Nahi adina dokumentu bil daitezke, baina dokumentu batek, gehienez, 500 Kilobyte eduki ditzake. Dokumentuei atxiki nahi zaizkien irudiek ez dituzte eduki behar bi Megabyte baino gehiago.

**ZOHO:** Askorentzat, hauxe da beste zerbitzu nagusia. Google-ren bulego birtuala bezain erabilgarria da, eta ezaugarriak ere berdintsuak ditu; Zoho-k, horrez gain, ukitu sozial interesgarria eman dio. Zerbitzu honetan, testuak editatu daitezke, kalkulu orriak ere bai, eta aurkezpenak antolatu daitezke; gainera, datu baseak sortzeko aukera ematen du, negozio dokumentuak kudeatzeko, eta, azkenik, bilera egutegia ere badu. Zoho ere doakoa da, eta gizarte sareekin loturak egiten ditu, dokumentuak partekatzeko (Facebook-ekin, adibidez), eta aukera ematen du idazmahaiako aplikazioen bitartez iristeko dokumentu horietara, Outlook posta zerbitzuaren bitartez, besteak beste. Talde bilerak Interneten egiteko aplikazio interesgarria ere eskaintzen du.

**ACROBAT.COM:** Adobe enpresaren ekimena da—Photoshop enpresaren jabea da—, baina hasiera samarrean dago oraindik. Itxura erakargarria du oso, eta aukera ematen du testuak eta kalkulu orriak editatzeko. Internet bidezko telekonferentziak eta telefono deiak ere egin daitezke.

